

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.10.28

Tolosako Udaletxean, 2014ko urriaren 28an, arratsaldeko 19:30tan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohizko Osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Ibai Iriarte San Vicente, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 19:30 horas del día 28 de octubre de 2014, se reúne el Ayuntamiento Pleno, en Sesión Ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia del alcalde, Ibai Iriarte San Vicente, y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:

Ibai Iriarte San Vicente

Bertaratutako zinegotziak:

Lore Agirre Zipitria
Asier De los Rios Soraluze
Igor Ezenarro Balda
Pedro Manuel Etxabe Zabala
Mikel Arreseigor Astibia
Rosa Maria Urkola Irigoyen
Ainhoa Etxeberria Aranburu

Jon Aldazabal Etxeberria
Miren Ezkiaga Etxezarreta
Jokin Azkue Arrastoa
Nerea Letamendia Belloso
Nuria Carbonell Miranda
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez
Jose Ignacio Asensio Bazterra
Olatz Peon Ormazabal

Ez Bertaratua:

Jon Koldobika Arsuaga Artola

Behin-behineko Idazkaria:

Karmele Contreras Goikoetxea

Behin behineko Kontuhartzaitza:

Paulino Alonso Eraso.

1.- Ondorengo akta onartzea:

2014ko irailaren 30eko Osoko Bilkurakoa

2.- Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:

1.- Aprobación del siguiente acta:

Sesión Ordinaria de 30 de septiembre de 2014.

2.-Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:

2014ko irailaren 1etik 30era (1194/2014-1332/2014).

Del 1 al 30 de septiembre de 2014 (1194/2014-1332/2014).

- | | |
|--|---|
| 3.- ELA sindikatuak aurkeztutako mozioa. Udaltzaingoaren aurre-jubilazioari buruzkoa. | 3.- Moción presentada por el sindicato ELA sobre la prejubilación de la Policía Municipal. |
| 4.- Emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna. Adierazpen instituzionala. | 4.- Declaración institucional del Ayuntamiento de Tolosa. Día Internacional de la eliminación de la violencia contra las mujeres. |
| 5.- LAB sindikatuak aurkeztutako mozioa. 7/1994 Merkataritzako legeari buruzkoa. | 5.- Moción presentada por el sindicato LAB sobre la Ley 7/1994 de establecimientos comerciales. |
| 6.- Tolosako P.S.E-E.Eren mozioa, pobrezia energetikoaren aurka eta kontsumitzaile kalteberak babesteari buruz. | 6.- Moción del PSE-EE contra la pobreza energética y sobre protección de los consumidores vulnerables. |
| 7.- Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorren "15.4 Inmakulada Ikastetxea" azpiesparruko aldaketa puntualaren behin behineko onspena. | 7.- Aprobación provisional de la Modificación del Plan General de Ordenación Urbana del subámbito "15.4 Inmakulada Ikastetxea" |
| 8.- Gobernu taldeak aurkeztutako mozioa: Liburu maileguarengatik liburutegi publikoek ordaindu beharreko kanona bertan behera uztea eskatzeko proposamena. | 8.- Moción presentada por el equipo de Gobierno: solicitud para dejar sin efecto el cánón impuesto a las bibliotecas municipales por el servicio de préstamo bibliotecario. |
| 9.- Gobernu taldeak aurkeztutako mozioa: Gizarte Larrialditarako Laguntzaren diru laguntza lerroaren indartzeko eskaera. | 9.- Moción presentada por el equipo de Gobierno: Solicitud para reforzar la línea de subvenciones de ayudas para emergencias sociales. |
| 10.- Galde-eskeak. | 10.- Ruegos y preguntas. |

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

A continuación se da inicio a la sesión por la presidencia, para analizar los siguientes puntos:

Ondoren, izenburuan aipatutako akta, aho batez, **onartu** da, Jokin Azkuek (EAJ) bere idatzian aurkeztutako xehetasunekin.

2.- **Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:**

2014ko irailaren 1etik 30era (1194/2014-1332/2014).

2.-**Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:**

Del 1 al 30 de septiembre de 2014 (1194/2014-1332/2014).

Alkatetzak, 2014ko irailaren 1etik 30era bitartean (1194/2014-1332/2014) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Udalbazkideak jakinaren gainean geratu dira eta denak ados agertu dira.

3.- **ELA sindikatuak aurkeztutako mozioa. Udaltzaingoaren aurre-jubilazioari buruzkoa.**

3.- **Moción presentada por el sindicato ELA sobre la prejubilación de la Policía Municipal.**

Gai zerrendan aipatutako mozioaren orde, adostutako hau tratatu da:

1. Tolosako Udala, Gizarte Segurantzaren gaineko egungo legedia aldatzeko prozesua zabaltzearen alde azaltzen da. Gaixotze, toxizidade, arriskugarritasun edota nekagarritasun zantzuak dituzten lanbideen katalogo bat osatzeko prozesua zabaltzearen alde, besteak beste, udaltzaingoaren lanbidea arriskuko lanbidetzat har dezala.
2. Tolosako Udalak, Eusko Legebiltzarrari eskatzen dio, Espainiako Gobernuari proposa diezaiola Gizarte Segurantza gaitako egungo legediaren aldaketa prozesua hasi dezan euskal udaltzainei aurre jubilatzeko koefiziente murriztaileak aplikatu ahal izateko, 1/1994 Errege Dekretu Arautzaileko berrogeitabostgarren xedapen gehigarrian jasotzen den bezala zeinak abenduaren 4ko 40/2007 Legea onartzea ahalbidetzen duena.
3. Tolosako Udalak galdegiten die Euskal Udalen elkarteei (EUDEL eta UDALBILTZA) inizatiba honi babesia eman diezaioten eta aurrera eramateko behar diren datuak eta dokumentuak eman ditzaten.

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Aralar:

Egia esan, jatorrizko mozioaren eta honen artean badago diferentzia: E.L.Ak aurkeztutako mozioak dio Madrilgo parlamentuan egindako akordio baten bitartez, Ertzainak 60 urterekin aurrejubilatzeako eskubidea lortu zela eta gauza bera eskatzen du udaltzaintzat, kontuan hartuta bi gorputzak polizi lege berean daudela, baina guri egokiago iruditu zaigu, kontutan izanik zer egoeratan gauden, beste udal langile batzuk ere badaudela baldintza gogorak eta kaxkarrak dituztenak, brigadakoak eta beste batzuk; hobe dela eskaera hori guztiei zabaltzea. Gainera, guztiok jarri gara ados. Aurrerapauso bat da, eta egokiagoa, puntu jakin batean ez fokalizatzea gaia.

..Jose Ignacio Asensio Bazterra, PSE-EE:

Ilido berean, arrisku edo gaixotzeko aukera berdina duten lanbideek eskubide berdinak eduki behar dituzte eta alde horretatik, baiezkoa emango dugu. Ados.

... Jon Aldazabal Etxeberria, EAJ-PNV:

Guk ere aldeko botoa emango diogu. Hau edo antzekoa orain dela hilabete dexte pasa zen Giza Baliabideetako Batzordetik eta aldeko bozka eman genuen. Dena den, esan behar da gai honetako kompetentzia ez dela Eusko Legebiltzarrena, baina hala ere, funtsean hemen eskatzen denarekin bat gatoz eta, batik bat, ikusita hemen daukagun brigadaren egoera kaskarra.

Aipatu nahi nuke, hemen E.L.Ak aurkeztutako 3. parrafoan esaten duenean: "ulergaitza den arren, sinatzaileek ez zuten Euskal Polizia Legeak esaten duena kontuan izan eta akordio horrek ez zuen Euskal Udaltzaingoa kontutan hartu" nik hemen esan behar diet E.L.Akoei, eta nik pentsatzen dut beraiek ere, badakitela hori, ez zitzaizela ahaztu; beste gauza bat da negoziketa batean zer lortu dezakezun eta lortu zen Ertzaintzarako, ez zen denentzako lortu eta, batik bat, arrazoiak nik pentsatzen dut izango zela Euskadirentzat hori onartzen bada, orduan Espainia guztian aplikatu beharko litzatekeela araudi hau, udaltzain guztia eta pentsatzen dut ulergaitza den ahazte hori hortik datorrela pixkat. Hori zehaztea, ados gaude eta baiezkoa emango diogu.

...Lore Agirre Zipitria, Bildu:

Pertsonal batzordera E.L.Ako kideak ekarri zuten gaia. Gainera, eztabaidatu zen eta ez zen gauzatu, denbora gehiago behar zen eta. Gaur, plenora ekarri da eta denbora gutxian gai izan gara adosteko hiru puntu horiek.

Aipatu den bezala, E.L.Ako mozioa ordezkatzeko arrazoiak hau izan da: Udaltzaingoaz gain, badaudelako beste lanpostu batzuk, bai kalte fisiko eta psikikoak izan ditzazketenak eta lan baldintzetan arriskua ere sufritzen dutenak. Tolosako Udalaren kasuan, ez soilik udaltzaingokoak, brigadakoak, Tolargikoak eta, zer esanik ez, lurreamendiko erizain eta zaintzaileenak. Orduan, orokorragoa planteatzeko, hau da, azalpenak kentzeko arrazoiak hau izan da.

1. puntu horretan, eskatzen dugu erretiro adina finkatu behar dela datu objetiboen arabera, arriskugarritasun edota nekagarritasun zantzuak dituzten katalogoa osatu. Gero bai, beste puntuak udaltzaingoari zuzenduta daude.

Jarraian, aipatutako mozioa bozkatu egin da, eta **aho batez** onartu da.

- 4.- Emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna. Adierazpen instituzionala. 4.- Declaración institucional del Ayuntamiento de Tolosa. Día Internacional de la eliminación de la violencia contra las mujeres.

Idazkariak Parekidetasun Batzordeak, urriaren 14an, egindako batzordearen diktamena irakurri du. Honela dio:

“Azaroren 25a Emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna dela eta, arratsaldeko 19:00etan, Udaletxe aurrean kontzentrazio instituzionala egitea, Tolosako Udalak biolentzia matxistaren kontrako jarrera aktiboa duela erakustarazteko helburuarekin.”

Jarraian, bozkatu egin da aipatutako kontzentrazioarako deialdia egitea, eta **aho batez, onartu egin da.**

- 5.- LAB sindikatuak aurkeztutako mozioa. 7/1994 Merkataritzako legeari buruzkoa. 5.- Moción presentada por el sindicato LAB sobre la Ley 7/1994 de establecimientos comerciales.

Gai hau Alkateak eskatuta hurrengo baterako utzi da.

- 6.- Tolosako P.S.E.-E.Eren mozioa, pobrezia energetikoaren aurka eta kontsumitzaile kalteberak babesteari buruz. 6.- Moción del PSE-EE contra la pobreza energética y sobre protección de los consumidores vulnerables.

Gai hau ez da tratatu. Bere ordean, 9. go mozioan tratatu da.

7.- Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren "15.4 Inmakulada Ikastetxea" azpiesparruko aldaketa puntualaren behin behineko onespena.

7.-Aprobación provisional de la Modificación del Plan General de Ordenación Urbana del subámbito "15.4 Inmakulada Ikastetxea"

Tolosako Udalbatzak, 2014ko martxoaren 26an egindako osoko bilkuran, hasierako onespena eman zion honako proiektu honi: Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren Aldaketa Puntuala, "15.4 Inmakulada Ikastetxea" azpiesparruari dagokiona.

El Pleno del Ayuntamiento de Tolosa, en sesión celebrada el día 26 de marzo de 2014, acordó aprobar inicialmente el Proyecto de Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa, referido al subámbito "15.4 Inmakulada Ikastetxea".

Dokumentua hasierako izaeraz onartu ondoren jendaurrean egon da hilabetez. Horretarako ondorengo argitarapenak egin dira: G.A.O. (2014-04-08), Berria (2014-04-08) , El Diario Vasco (2014-04-08), Gara (2014-04-08) eta Tolosaldeko Ataria (2014-04-08).

Tras su aprobación inicial, el documento fue expuesto al público por el plazo de un mes, mediante la publicación del anuncio correspondiente en el B.O.G. (08-04-2014), Berria (08-04-2014), El Diario Vasco (08-04-2014), Gara (08-04-2014) y Tolosaldeko Ataria (08-04-2014).

Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

Durante dicho plazo no se presentó alegación alguna.

Tolosako Udal Planeamenduko Aholku Batzordeak aldeko iritzia eman dio proiektuari 2014ko urriaren 10ean egindako bilkuran.

El Consejo Asesor de Planeamiento de Tolosa informó favorablemente el Proyecto, en sesión celebrada el 10 de octubre de 2014.

Hortaz, aztertu ondoren planari buruz egindako txosten juridiko eta teknikoak, eta Hirigintza batzordeak, 2014ko martxoaren 14an emandako aldeko diktamena, Udalbatzak, aho batez, hau da gehiengo osoz,

Vistos los informes jurídicos y técnicos elaborados al respecto y el dictamen favorable emitido por la comisión de Urbanismo de fecha 24 de octubre del 2014, el Pleno del Ayuntamiento, por unanimidad, lo que supone la mayoría absoluta,

ERABAKI DU:

ACUERDA:

1.-Behin-behineko izaeraz onartzea Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aldaketa Puntuala, "15.4 Inmakulada Ikastetxea" azpiesparruari dagokiona, ondoren zehazten diren baldintzapean:

1.-Aprobar provisionalmente el Proyecto de Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa, referido al subámbito "15.4 Inmakulada Ikastetxea", con el siguiente condicionado:

1.1.-Eraikigarritasun haztatua gehitzeak eragindako zuzkidura-karga kendu beharko da. Hori obretako udal lizentzia ematen denean gauzatuko da.

1.1.-Deberá procederse al levantamiento de la carga dotacional derivada del incremento de edificabilidad ponderada, que se materializará al concederse la oportuna licencia municipal de obras.

1.2.-Zuhaitz bat landatu behar da eraikitako 100 m²-ko gehikuntza bakoitzeko. Azpiesparruan betetzea ezinezkoa bada, beste esparru batean gauzatu beharko da.

1.2.-Deberá plantarse un árbol por cada 100 m² (t) de incremento de superficie. En caso de no poder cumplirse en el subámbito, deberá materializarse en otro ámbito.

2.-Proiektua Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari igortzea, dagokion txostena egin dezan.

2.-Remitir el Proyecto a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, en solicitud de que emita el informe correspondiente.

8.- Gobernu taldeak aurkeztutako mozioa: Liburu maileguarengatik liburutegi publikoek ordaindu beharreko kanona bertan behera uztea eskatzeko proposamena.

8.-Moción presentada por el equipo de Gobierno: solicitud para dejar sin efecto el cánón impuesto a las bibliotecas municipales por el servicio de préstamo bibliotecario

LIBURU MAILEGUARENGATIK LIBURUTEGI PUBLIKOEK ORDAINDU BEHARREKO KANONA BERTAN BEHERA UZTEA ESKATZEKO PROPOSAMENA

Uda honetan PPK kultura- eta hezkuntza-munduari eraso dio beste behin, eta beraz beste urrats bat aurrera egin du zerbitzu publikoen aurka abian jarri duen gurutzadan.

Joan den abuztuaren 1ean E.A.Oan *624/2014 Errege Dekretua argitaratu zen, uztailaren 18koa, establezimendu publiko jakin batzuetan beren lanak maileguz uzteagatik egileei ordaintzeko eskubidea garatzen duena*. Gobernuaren aldebakarreko Dekretu horrek ezin gehiago gutxietsi eta baztertu ditu liburutegietako profesionalen iritzia eta irizpidea, eta ospe handiko zenbait idazle ere haren aurka egiten hasi dira.

Onartutako dekretuaren arabera, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera, 5.000 biztanletik gorako udalerrietan, liburutegi publikoek kanon bat ordaindu beharko diete egile- edo editore-elkarteei zentro bakoitzean maileguz utzitako liburu bakoitzeko edo erregistratutako erabiltzaile bakoitzeko. Liburutegiek ordaindu beharko dute, beraz, legeen arabera eskaini behar dituzten zerbitzuak eskaintzeagatik, eta horrela liburutegiaren funtsa kolokan jarriko da, baita zerbitzu publiko horren biziraupena bera ere.

Egile-eskubideen elkarteek beren gain hartuko dute kanonaren kudeaketa osoa, ordaintzeko betebeharra izapidetuz urtean behin kanona egileei helarazteko. Hau da, diru publikoarekin negozio pribatua sustatuko da.

PROPOSAMENA:

1. Uztailaren 18ko 624/2014 Errege Dekretuak ezarritako kanona atzera botatzeko eta bertan behera uzteko eskaera egitea, liburu-maileguaren eta liburutegiaren alorrean legeek ezartzen dituzten betebeharrak urratzen dituelako.
2. Tokiko, foru-aldundietako eta autonomia-erkidegoko liburutegi publikoetan kanon horren edozein ordainketa bertan behera uztea.

... **Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Aralar:**

Badakigu neurri batean mozio honek karga sinbolikoa duela eta objetiboki gutxi egiterik dagoela, baina egin, egin behar dela. Badakigu Errege Dekretu hau Europako Batasunak emandako zuzenbide arau baten transposizioa dela, behartuta dagoela estatua hori egitera baina, horrek ez du esan nahi logikoa denik. Ez dauka logikarik herritarrak kulturaz hornitzeko, kanon bat sortaraztea Udaletxei. Ez dio mesede egiten ez egileari ez erabiltzaileari, ezta kanon hori pagatu behar duen erakunde publikoari ere. Hain zuzen ere, liburutegi horien funtzioetako bat delako kultura zabaltzea, literatura ezagutaraztea ematea. Kulturako gizon bezala gauza bera pentsatzen dut, ez duela logikarik, zentzugabea dela, eta bizi garen mundu neoliberal eta idea neoliberal horien beste adierazpen bat dela, kultura ere, ordaindu egin behar dela, eta kulturatik ere, tasak ordaindu behar direla. Eta aldarria besterik ez bada ere, aldeko botoa emango du Aralarrek.

... **Jose Ignacio Asensio Bazterra, PSE-EE:**

Transposizioa bat den Errege Dekretua, Direktiba bat. Liburutegien egoera hobetu egin beharko luke eta Errege Dekretu honek ez dakit egiten duen ala ez. Zalantzak ditut; egia da europar Direktiba bat dela eta, beraz, transposizioa behar duela eta alde horretatik beharrezkoa zen. Baina egia da, Errege Dekretu hori zerbait gehiagotarako erabil daitekeela. Ni abstenitu egingo naiz, asko hobetu beharreko Dekretua delako.

... **Jokin Azkue Arrastoa, EAJ-PNV:**

Guk mozio honen alde egingo dugu. Gure iritzia da liburutegi publikoetan eskaintzen den zerbitzu nagusia dela liburuaren mailegua. Gainera, udal liburutegiak beti diruz nahiko justu ibiltzen dira; badaude Jaurlearitzako ekarpenak neurri txiki batean hori estaltzeko, eta horrek esan nahi du aukera gutxiago izango dutela udal liburutegiak liburu gehiago erosteko. Badakigu Direktiba bat dela, badakigu egileak ere hor daudela, baina pentsatzen dugu beste era batean egin daitekeela, bide hau hartu aurretik eta aldekoa emango diogu mozio honi.

... **Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea:**

Gure aldetik, mezua berdina da; azken finean, argi daukagu eskubideak ezin direla merkaturatu. Liburutegiak hezkuntza eta garapen humanoa gauzatzeko esparruak dira, eta ezin da horrelako kanon eta zergen bidez kultura ito. Kultura merkaturatzeak ateak ixten dizkio giza eboluzio horri; eskubideak pribilegio bilakatu nahian dabilta, gutxinaka gutxinaka, eta betidanik eskubide izan diren horiek mantentzeko kanon honek ez dauka inongo zentzurik.

Gaur egun, liburutegia nahiko defizitarioa da eta zerbitzu honi oraindik ere, karga gehiago jartzen dizkiogu. Nahiz eta europar batasuneko Direktiba izan, beti esan dugu Europak erantzun behar diela batasuneko gizaki, pertsona eta herriei, eta ez kapitalari. Zentzu horretan, behintzat, guk ere mozio honen alde egingo dugu eta Direktiba hau bertan behera utzi dezatela eskatu.

Jarraian, mozioa bozkatu egin da eta **onartu egin da** aldeko botu hauekin: Bildu, Aralar eta E.A.J-P.N.V. Abstenitu egin da P.S.E.-E.E.ko ordezkaria.

9.-Gobernu taldeak aurkezutako mozioa: Gizarte Larrialditarako Laguntzaren diru laguntza lerroaren indartzeko eskaera.

9.-Moción presentada por el equipo de Gobierno: Solicitud para reforzar la línea de subvenciones de ayudas para emergencias sociales.

Hasierako mozioa ordezkatu egin da aipatzen den mozio honengatik.

Gizarte Larrialditarako Laguntzaren diru laguntza lerroaren indartzeko eskaera mozioa.

Administrazio publikoek herritarren bizi kalitatea eta oinarrizko eskubideak bermatu behar dituzte. Hori horrela, bizitzeko oinarri oinarrizkoak diren zerbitzu eta eskubideak bideratu behar dizkie herritarrei eta hauek kalitatezkoak izan daitezen lan egin behar du. Modu horretan, hezkuntza zein osasuna bezala bizitza autonomo eta duin bat izateko eskubidea du herritar orok, Nazio Batuen Erakundearen bere 25. artikuluan dioen moduan:

Toda persona tiene derecho a un nivel de vida adecuado que le asegure, así como a su familia, la salud y el bienestar, y en especial la alimentación, el vestido, la vivienda, la asistencia médica y los servicios sociales necesarios; tiene asimismo derecho a los seguros en caso de desempleo, enfermedad, invalidez, viudez, vejez u otros casos de pérdida de sus medios de subsistencia por circunstancias independientes de su voluntad.

Oinarrizko eskubideen bizi kalitateak asetzen dituen administrazioak gizarte kohesionatu eta orekatua du, zeinaren bidez, herritarren arteko segurtasuna bermatzen laguntzen duen.

Egun, krisialdi ekonomikoaren testuinguru batetan egonda, inoiz baina garrantzitsuagoak dira eskubide hauek bermatzeko administrazio publikoek lan egitea. Langabeziaren igoerak gizarte kohesioa hausteko bidea irekitzen duelako eta honen bidez herritarren oinarrizko eskubideak ez bermatzea eraman. Beharrak inoiz baina handiagoak izaki, administrazioek ahaleginak handitu behar dituzte eta horrekin batera aurrekontu partidak.

Testuinguru honetan, 2008ko Gizarte Zerbitzuetako 12/2008 Legeak inoiz baina garrantzia handiago hartzen du. Bertan aurrez eskaintzen ziren zerbitzu asko oinarrizko eskubide izatera pasatzen dira eta administrazio publiko bakoitzari dagozkion zer eginak zehaztu.

Eskubide eta egin behar horien artean, Gizarte Larrialditarako Laguntzak daude. Hauen bidez, herritar askok behar beharrezkoak dituzten gaiak ordaintzeko laguntza jasotzen dute, hala nola, etxebizitzaren alokairua, elikagai, janzteko arropa, ura eta argiaren fakturak zein bestelako oinarrizkoak. Laguntza honen arduraduna Eusko Jaurlaritzak da eta udaleko gizarte zerbitzuen bidez banatzen dira herritarrei. Ezin ahaztu azken boladan zabaldu den pobrezia energetikoaren arazoa, zeinak familia asko eta askori etxean bero edo argia piztea bera baldintzatzen dien.

Azken urteetan, herritarren beharrak handitzen joan ahala diru funtsa honen zenbatekoa ez da nahikoa izaten ari herritarren beharrak asetzeko eta pertsona hauek laguntza jasotzeko eskubidea izan arren udala, diru poltsarik ezean eskubidea ukatzen ari zaie.

2014. urtean Gizarte Larrialditarako Laguntzari begirako aurrekontua 143.130 eurotako izan da eta Eusko Jaurlaritzaren ekarpena 140.189 eurotako. Urrirako jada 156.295,79 eurotako izan da gastua, beraz 16.106,79 eurotako da jada defizita. Honen aurrean udaleko gizarte zerbitzuek 56.000 eurotako diru partida bat eskatu dute urte amaiera arte eskubidea duten horiei hau bermatzen jarraitzeko.

Hau dena kontutan harturik, Tolosako udalak:

-“Gizarte Larrialditarako Laguntza” izeneko diru laguntzaren beharrezkotasuna onartzen du, beraren bidez gizarte kohesioa sustatu eta oinarrizko giza eskubideak bermatzen laguntzen dutelako.

-Herritarrek dituzten beharrak asetzeko adinakoa izan dadila Eusko Jaurlaritzaren GLL ko diru ekarpena. Kontutan hartuz, Pobrezia energetikoaren aferaren igoera, zeinak erakusten duen herritar askoren oinarrizko beharrak ez daudela asetuta.

Azter dezala Eusko Jaurlaritzak gai zehatz (pobrezia energetikoa) hori irtenbidea emateko aurrekontu lerro berririk irekitzea eraginkorra eta komenigarria den.

Mozio honen berri Eusko Jaurlaritzako enplegu eta gizarte politiken departamendu eta sailburuari, lehendakariari, ogasun eta finantza departamendu eta sailburuari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte politika departamendu eta diputatuari ematea.

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Aralar:

Mozio honek baditu bi edo hiru elementu inportanteak: bata, garrantzitsua da udalak egiten duen posizionamendu politikoa gizarte laguntzen aurrean, ikusirik gure herri honetan badirela pertsonak eta alderdi politikoak nolabait gizarte laguntzen auzia borroka politikora eraman nahi dutenak. Ez zait hori egokia iruditzen, nik uste dut pertsonen duintasuna eta familien duintasuna guztien gainetik daudela eta erakunde publikoak hori bermatzeko daudela eta hori garbi aldarrikatzen duela udal honek puntu honetan eta hori azpimarratzekoa dela. Bestetik, jakina, duintasuna bermatzeko behar dira diru funtsak. Eusko jaurlaritzaren kompetentzia da ; badakigu funtsa horiek bukatu direla ia aurten eta beste urtetan bukatu izan direla eta.

Jaurlaritzak bideak egin beharko ditu hori konpontzeko. Bestela, udalak bere gain hartu beharko dute falta diren funtsa horiek gure fondo propioetatik. Jakina, udalok ezin dugu arazo horrengatik , pertsonen duintasuna bermatzeagatik, laguntza horiek eman gabe utzi. Azkenik , aipatzen den fenomeno ez da berria, asko ugaltzen ari dena azken aldi honetan da pobrezia energetikoarena. Hor ere, politika berezikoa den aztertu beharko litzateke, kontutan hartu beharko litzateke zaku berean kudeatu, aztertu berariazko poltsa behar duten, aurrekari adierazgarriak daude eta: Madrilgo gobernuak Tribunal Konstituzionalera eraman izana kataluinako pobrezia energetiko kontrako legea, orain dela hilabete. Hor ere, zuhur ibili behar litzateke.Fenomeno berri bat da eta gehiago zabaltzen ari delako. Jakina, gure aldeko botoa izango duela.

... Jose Ignacio Asensio Bazterra, PSE-EE:

Erabat ados Iñakik esan duenarekin. Noski, krisialdi ekonomiko testu inguru batean gaudela eta horretarako daude gizarte larrialditarako laguntzak . Dirua bukatu dela, bueno, ba ikusirik zertaz ari garen hitzegiten, gizarte larrialditarako laguntzak, hauek lehentasunezkoak dira. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak ez badu dirua jartzen, udalak jarri beharko du. Eta eskumena Eusko Jaurlaritzarena da, alde horretatik mozioa nahiko garbia da.

Eta adostu dugu guk aurkeztu genuen pobrezia energetikoari buruz mozio bat. Hemen sartu dugu eta nire ustez, ondo jarrita dago, ondo azpimarratuta eta horrengatik, erabat ados.

... Olatz Peon Ormazabal, EAJ-PNV:

Pobrezia energetikoaren puntuari dagokionez, erabat egingo dugu bat alderdi sozialistak egindako proposamenarekin. Bigarren parrafoan, egiari zor, badakizue gizarte larrialditako laguntzak ez direla eskubide subjektibo bezala izendatuak, horren aurrekontu baten araututakoak dira. Beraz, hor proposatzen dugun testua hau da: "Eusko Jaurlaritzak gizarte larrialditako laguntzak edo diru kopuru ekarpenak zehazterakoan egin ditzala herritarrak behar dituen egoerari aurre egiteko egokitutako aurreikuspenak".Bestetik, aurreko urtean ia egoera berean aurkitu zen Tolosako udala; orduan, Tolosako udalak, horrela guk eskatu genuen, habilitatu zuen 76.000 euroko partida bat egoera hauei aurre egiteko. Eusko Jaurlaritzak

onartu zuen, pentsatzen dut kreditu aldaketaren arabera, eta dirua handik etorri zen. Hor gelditu zen diru partida hori beste larrialdi batzuei aurre egiteko. Aurtengo urrian diru partida horretatik 56.000 euro gelditzen dira oraindik, bai eskatu nahi genuke diru hau kontuz kudeatzea. Ez dakigu Jaurtitzak azkenean habilitatuko duen ala ez diru hori. Zentzuz kudeatuta izatea azpimarratuko genuke.

Lehentasuna aipatu duzue. Baita ere, Gizarte Zerbitzuetako Batzordean saiatu ginen, horrela eskatu genuelako, udal laguntzak lehentasunez banatzeko, banatu ahal izateko arautzea eta hori egitea posiblea ez zen izan. Niri bai, iruditzen zait oso gai inportantea lehentasuna jartzea gai honen inguruan.

... **Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea:**

Gai hau plenora ekarri behar zela ikusten genuen. Bigarren urtea da honen inguruan gauza bera gertatzen zaigula. Honen inguruan, guk argi daukagu udaletik defizit hau asumitzen dugula eta asumituko dugula, nahiz eta ez izan gure kompetentzia. Hau da, ez gaude prest herritar batek izan ditzakeen behar hauei erantzun gabe gelditzeko, eta horretarako partidak mugitu, kreditu-aldaketak egin, edo egin beharrekoak egingo dira, oinarritzko eskubideez hitzegiten ari garelako eta pertsonak helburu ditugulako. Gizakietan inbertitu behar dugu, eta beste leku batzuetatik kendu behar baldin bada, kenduko da. Guk argi daukagu momentu honetan: nahiz eta diru poltsa hutsik egon, defizit hau asumitzen ari gara; 56.000 euroko partida eskatzen zaigu, eta, Eusko Jaurtitzari itxoin gabe, udalak asumitzen du. Hori asteko. Asumitzen du diru hori jarri egingo duela, aterako da aterako den lekutik, baina argi daukagu jarriko dugula eta pertsona hauei ezezkoa ez zaiela emango. Hori asteko. Gertatzen ari dena da ari garela asumitzen, berriro ere, guri ez dagokigun partida bat, nik ulertzen dut egiten duzuen eskaera hori, hau da, Eusko Jaurtitzaren aurreikuspenarena. Baina, beharra aurreikuspen gaineratik dago, eta guk horregatik garbi esaten duguna da: beharrak asetzeko adina izan dadila partida hau ez aurreikuspen bat baizik eta beharrak asetzeko adinako diru ekarpenak egon behar dutela, bai eta bai, berriro diogulako, ezin dugulako onartu ez etxe bat kalefazioa piztu gabe, ez ume bat arropa berria erosi gabe ezta kaleratzerik gertatzea ere alokairua ordaintzeko aukerarik ez dutelako. Ados nago esaten zenuenarekin: prozedura bat ezartzearena, baina jakin badakigu hor idazkaritzatik agindu zitzaiguna, ez arautzearena ofizialki, udalak ez dutelako arlo horretan kompetentziarik. Iruditzen zaigu oso inportantea dela pertsonaz hitzegiten ari garen neurrian oinarriak betetzea, ez aurreikuspenak. Orduan, argi dugu eta asumituko dugu, baina esan beharra dago antolaketa administratibo guztietatik. Eusko Jaurtitzak zerga bilketaren %70 jartzen duen neurrian, %20 Foru aldundiek eta %10 udalek, ezin garela izan beti berdin, partidak amaitu eta herritarren beharrak asetzeko gastuek asumitzen ditugunak. Hala ere, asumitzen jarraituko dugu, baina, iruditzen zaigu badela garaia dagokionak jakin dezan behintzat, hemen jada udara amaierako partida agortuta zegoela, bigarren urtez gertatzen zaigu gauza bera, eta horrek esan nahi du beharrak, bai Tolosan, bai udal askotan, handiagoak izateak partidak eta aurreikuspenak handitzeak ekarri behar dituela.

Beraz, mozioa **bozkatu** egin da puntuz puntu, hau izanik emaitza:

-Lehenengo puntua.-Aho batez **onartu** egin da.

-Bigarrenengo puntua.- E.A.Jak egindako proposamena bozkatu da, eta ez da onartu: alde bozkatu du E.A.J (7 botu) kontra Bildu-Aralar (8 botu) P.S.E-E.E.ko kidea abstenitu egin da.

Jarraian, aurkeztutako mozioaren bigarren puntu hau bozkatu da eta onartu egin da: alde agertu dira Bildu-Aralarko zinegotziak (8 botu) eta P.S.E-E.E.ko zinegotzia. Kontra bozkatu dute E.A.Jko zinegotziek (7 botu)
-Hirugarren puntuak.-Aho batez onartu da.

10.-Galde erreguak

... Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea:

Aipatu nahiko nuke atzo ere, hondakinen mahaia elkartu zela. Beraz, jakingo zenuten bezala, sistemaren ezarpena gauzatzen ari da. Gonbidatuta zaudete parte-hartzeko mahaira etortzera. Nik uste dut, azken finean, sistemaren inplantazioaren jarraipena egiteko izango litzatekeela eta, batez ere, garrantzitsua delako, etorkizunari begira, martxan jarri beharko liratekeen kontzientziario kanpainei dagokionez, esparru diferentea delako, lanerako gune eta besterik gabe, gonbidatu parte hartzera.

... Olatz Peon Ormazabal, EAJ-PNV:

Argi gelditzeko, inor konfunditu ez dadin, gu hondakin mahai horretatik altxa egin ginen bere garaian, han ez zelako bete guk eskatzen genuen helburua edo genituen espektatibak hondakin mahai horrekin. Badago batzorde bat udaletxean ingurugiroa eramaten duena, uste dugu instituzioa ezin dela hustu beste mahai batzuei indarra emateko. Hala ere, udal taldeak mahai horrekin jarraitu nahi baldin badu, berak ikusiko du. Egokia iruditzen zait plataforma izan daitekeelako eragileekin hitzegiteko, baina, guri alderdi politiko bezala, udaleko batzordean gustatuko litzaguke aztertzea gai hau.

... Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea:

Eskua luzatuta jarraitzen du berriro ere.

Besterik gabe, gaueko bederatzitan bilera bukatutzat eman da, eta guztia nik, Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut.

Sin más asuntos que tratar, siendo las nueve de la noche, se da por finalizada la Sesión, de todo lo cual yo, el Secretario, certifico.

ALKATEA

Beh. Beh.IDAZKARIA